



GOBERNU BILERA

**Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak**

CONSEJO DE GOBIERNO

**Dossier de Prensa
Acuerdos destacados**

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilak 31

Vitoria-Gasteiz, 31 de enero de 2023

Ekonomia eta Ogasuna

2023RAKO GEHIENEZ 1.197 M €-KO ZORPETZE-ERAGIKETAK EGITEKO BAIMENA

Gobernu Kontseiluak erabaki du zor publikoaren jaulkipen bat edo batzuk egitea, eta baimena ematen du gehienez ere 1.197.107.927 euroko mailegu-eragiketak hitzartzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko 2023ko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen Legean ezarritakoaren arabera.

Lege horren arabera, Autonomia Erkidegoko Administrazioak formalizatutako zorpetzea muga honekin igo ahal izango da: ekitaldiaren amaierako saldoak ezin izango du gainditu ekitaldiaren hasieran dagokion saldoa 419.158.907 euro baino gehiago.

Zorpetze-eragiketak eurotan edo beste edozein dibisatan egin ahal izango dira, interes-tasa finko edo aldakorrarekin. Era berean, 50 urteko gehieneko epea ezartzen da. Eta eragiketa horiek egin ahal izango dira, bai errendimendu esplizitu edo inplizituko baloreak zirkulazioan jartzea dakarten zor publikoko jaulkipenen bidez, eurotan edo beste edozein dibisatan, edozein formatu eta egituratan eginda, bai mailegu edo kredituko beste edozein eragiketa motaren bidez.

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 2023ko DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTU DU

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, Sail honen 2023 urterako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu du. Dokumentu honetan, lau Sailburuordetzek eta hamabi Zuzendaritzek kudeatzen dituzten dirulaguntza deialdi guztiak jasotzen dira, eta laguntza hauen aplikazioarekin lortu nahi diren helburuak eta eraginak ere zehazten dira.

Izaera programatikoa duen Plan hau Hezkuntza Sailaren politika antolatzeko tresna da, dirulaguntzen bidez, gizartearen intereserako den jarduera bat sustatzea jomuga duten jardun-arloetan. Era honetan, tresna honen bidez sailaren jardute-eremuan eraginkortasun maila areagotzea lortzeaz gain, gardentasuna sendotzea ere lortzen da.

Orotara, 113 dirulaguntza lerro ditu egun Hezkuntza Sailak, eta horien kopuru osoa 175.446.963 eurokoa da 2023 urterako. 113 lerro horien artean nabarmentzekoak dira, besteak beste, eskolatzeko beka eta laguntzak, unibertsitate-bekak, Lanbide Heziketako zein unibertsitateko ikasleen mugikortasuna errazteko laguntzak edo ikertzaileen mugikortasuna laguntzeko deialdiak. Era berean, Hezkuntza Sailaren dirulaguntza guztien artean leku garrantzitsua dute lehentasunezko jarduera-eremuetan sustatzen diren programa eta proiektuetara bideratutakoek, hala nola hezkidetzara, genero-indarkeriaren prebentziora, bake eta bizikidetzara, eleaniztasunera edo aniztasunarekiko arretara bideratutakoek, alde batera utzi gabe Hezkuntza-laguntzako Berriazko Premiak dituzten ikasleei erantzuten dieten programak, besteak beste. Laguntza zerrenda luzean aipatzekoak dira, halaber, irakasleen prestakuntzara bideratuak, ikerketa sustatzeaz arduratzen direnak, Lanbide Heziketako ikastetxeetarako ekipamendua eskuratzea helburu dutenak edo udal titulartasuneko eskoletan instalazioak egokitzeko asmoz deitzen diren dirulaguntzak, beste hainbatekin batera.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

GIZARTE-ZERBITZUAK MODERNIZATZEKO PROIEKTUETARAKO EUROPAKO FUNTSEN BANAKETA ONARTU DU JAURLARITZAK

Justizia, Berdintasun eta Gizarte Politiketako sailburu Beatriz Artolazabalek proposatuta, Gobernu Kontseiluak zainketen ekonomiari buruzko proiektuak finantzatzeko eta berdintasun- eta gizarteratze-politikak indartzeko Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean (2021eko apirilean onartua) jasotzen diren Europako funtsen banaketa onartu du.

2022ko ekitaldiko banaketa horren arabera, Eusko Jaurlaritzari 4.440.000 euro dagozkie; Arabako Foru Aldundiari, 5.715.000 euro; Bizkaiko Foru Aldundiari, 17.720.000 euro; eta Gipuzkoako Foru Aldundiari, 11.799.029,54 euro.

Zaintzaren Ekonomiarako eta berdintasun- eta gizarteratze-politikak indartzeko Europako Planaren helburu nagusia gizarte-zerbitzu guztiak modernizatzea eta indartzea da, arreta berezia jarriz iraupen luzeko zainketen eredian, berrikuntzaren sustapenean eta pertsonarengan oinarritutako arretaren eredian.

Hori lortzeko, Planak honako hauek aurreikusten ditu: mendekotasuna duten pertsonen arreta indartzea, iraupen luzeko laguntza eta zainketen eredia eraldatzea, Pertsonarengan Oinarritutako Arreta, eta zerbitzu komunitarioen eta etxez etxeko arretaren garapena.

Era berean, asilo-eskatzaileen eta babes humanitarioaren harrera-eredua aldatzea planteatzen du planak, beharretara egokitutako gaitasunak bermatzeko eta haien eraginkortasuna handitzeko.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 30.000 EURO BIDERATUKO DITU EUSKARAREN ETA GENERO-BERDINTASUNAREN ARLOAN IKERKETA-LANAK EGITEKO LAU BEKA SUSTATZERA

Gobernu Kontseiluak Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren “Berdintzen 2023” beka onartu ditu gaur. Beka horien bidez, euskararen eta genero-berdintasunaren arloko ikerketa-lanak bultzatu nahi dira, eta, horrela, generoa eta hizkuntza gurutzatzen dituen ezagutza-esparrua osatu eta indartu. Guztira, 7.500 euroko lau beka emango dira.

Honako hauek izan beharko dira ikerketa-gaiak:

- Euskararen biziberritze prozesuak generoari lotuta ulertzeko ikerketa teoriko edo-eta metodologiko demolinguistikoak.
- Generoaren ikuspegia txertatuz eraikitzen diren Euskararen biziberritze prozesuei buruzko ikerketa aplikatuak.
- Generoa eta hizkuntza uztartzen dituzten corpus, komunikazio edo-eta diskurtso azterketak eremu ezberdinetan (hezkuntza, lan mundua, familia, aisialdia eta kirola...).
- Euskararen biziberritzean emakumeek izan duten paperari buruzko ikerketa lanak (ahozko ondarea baliatuz edo-eta ikerketa bibliografikoak eginez).

Proiektuak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, gaur onartutako Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Ondoren, hautaketa-batzorde batek proiektuak aztertu eta beka esleituko ditu.

Iazko deialdian honako lau ikerketek jaso zuten Berdintzen beka:

- *Sukaldetik agorara: Euskaraz idatzi duten emakumeak “lurralde ilunetik” argitara ateratzeko bidean* (Miren Elixabete Perez Gaztelu eta Leyre Arrieta Alberdi)
- *Osakidetzako Zumarragako ospitalean hizkuntza inklusiboaren monitorizazioa* (Miren Mujika Garate)
- *Xuka eta noka Ipar eta hego: emakumeekin solasean* (Uxo Elustondo Arzallus eta Irantzu Epelde Cendoya)
- *Hizkuntza, generoa eta kirola. Euskararen erabilera eta genero-irudikapena herri mailako lasterketetan* (Alazne Mujika Alberdi).

Economía y Hacienda

AUTORIZACIÓN PARA REALIZAR OPERACIONES DE ENDEUDAMIENTO PARA 2023 POR UN IMPORTE MÁXIMO DE 1.197M€

El Consejo de Gobierno ha acordado la realización de una o varias emisiones de Deuda Pública, y autoriza la concertación de operaciones de préstamo por un importe máximo equivalente a 1.197.107.927 euros de conformidad con lo establecido por la Ley por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2023.

Según esta ley, el endeudamiento formalizado por la Administración de la Comunidad Autónoma podrá incrementarse con la limitación de que el saldo al cierre del ejercicio no supere el correspondiente saldo al comienzo del mismo en más de 419.158.907 euros.

Las operaciones de endeudamiento se podrán hacer en euros o cualquier otra divisa, con un tipo de interés fijo o variable. Asimismo, se establece un plazo máximo de 50 años. Y estas operaciones se podrán realizar o bien a través de emisiones de deuda pública que supongan la puesta en circulación de valores de rendimiento explícito o implícito, en euros o en cualquier otra divisa, y realizadas bajo cualquier formato y estructura o bien mediante cualquier otra tipología de operación de préstamo o crédito.

Educación

EL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN APRUEBA SU PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES 2023

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta del consejero de Educación, el Plan Estratégico de Subvenciones 2023 del Departamento de Educación. Este documento recoge la totalidad de las convocatorias de subvenciones gestionadas por las cuatro Viceconsejerías y las doce Direcciones del Departamento de Educación, y concreta los objetivos y efectos que se buscan con su aplicación.

El Plan, de carácter programático, se configura como un instrumento de planificación de la política del Departamento de Educación en las áreas de actuación que tienen por objeto el fomento de actividades de interés social, mediante la concesión de subvenciones. De esta forma, esta herramienta garantiza un incremento en los niveles de eficacia y eficiencia, así como el fortalecimiento de la transparencia en su ámbito de actuación.

El Departamento de Educación tiene actualmente un total de 113 líneas subvencionales, cuyo importe global para el año 2023 asciende a 175.446.963 euros. Entre estas 113 líneas destacan las becas y ayudas para la escolarización, las becas universitarias, aquellas destinadas a favorecer la movilidad del alumnado –tanto universitario como de Formación Profesional- o del personal investigador. De igual manera, ocupan un lugar relevante entre todas las subvenciones del Departamento de Educación las dirigidas a programas y proyectos promovidos en los ámbitos de actuación prioritarios como la coeducación, la prevención de violencia de género, la paz y convivencia, el plurilingüismo o la atención a la diversidad, sin dejar de lado los programas que dan respuesta al alumnado con Necesidades Específicas de Apoyo Educativo, entre otros. En la larga lista de ayudas se pueden citar, asimismo, las dirigidas a la formación del profesorado, las que se ocupan del fomento de la investigación, las que tienen por objeto la adquisición de equipamiento para centros de FP o las dirigidas al acondicionamiento de instalaciones escolares de titularidad municipal, entre muchas otras.

Igualdad, Justicia y Políticas Sociales

EL GOBIERNO APRUEBA EL REPARTO DE LOS FONDOS EUROPEOS PARA PROYECTOS DE MODERNIZACIÓN DE LOS SERVICIOS SOCIALES

A propuesta de la Consejera de Justicia, Igualdad y Políticas Sociales, Beatriz Artolazabal, el Consejo de Gobierno ha aprobado la distribución de los fondos europeos para la financiación de proyectos sobre economía de los cuidados y refuerzo de las políticas de igualdad e inclusión social que se contemplan en el Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, aprobado en de abril de 2021.

De acuerdo con este reparto del ejercicio 2022, al Gobierno Vasco le corresponderán 4.440.000 euros; a la Diputación Foral de Araba, 5.715.000 euros; a la Diputación Foral de Bizkaia, 17.720.000 euros; y la Diputación Foral de Gipuzkoa, 11.799.029 euros.

El objetivo principal del Plan europeo de choque para la Economía de los cuidados y refuerzo de las políticas de igualdad e inclusión social, es la modernización y refuerzo del conjunto de los servicios sociales, con especial atención al modelo de cuidados de larga duración, la promoción de la innovación y del modelo de Atención Centrada en la Persona.

Para su consecución, el Plan contempla el refuerzo de la atención a las personas dependientes, la transformación del modelo de apoyos y cuidados de larga duración, la Atención Centrada en la Persona, y el desarrollo de los servicios comunitarios y la atención domiciliaria.

Igualmente, el plan plantea la reforma del modelo de acogida de solicitantes de asilo y protección humanitaria con el fin de garantizar capacidades ajustadas a las necesidades e incrementar su eficiencia.

Cultura y Política Lingüística

EL GOBIERNO VASCO DESTINARÁ 30.000 EUROS A SUBVENCIONAR CUATRO BECAS PARA REALIZAR TRABAJOS DE INVESTIGACIÓN EN MATERIA DE EUSKERA E IGUALDAD DE GÉNERO

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy las denominadas becas “Berdintzen 2023” del departamento de Cultura y Política Lingüística. Mediante estas becas se pretende impulsar la realización de trabajos de investigación en materia de euskera e igualdad de género y así completar y reforzar el marco de conocimiento sobre el género y la lengua. En total serán cuatro becas de 7.500 euros cada una.

Los temas de investigación deberán ser los siguientes:

- Estudios teóricos y/o metodológicos demolingüísticos para comprender los procesos de revitalización del euskera en relación con el género.
- Investigaciones aplicadas sobre los procesos de revitalización del euskera que se construyen incorporando la perspectiva de género.
- Análisis de corpus, comunicaciones o discursos que combinan género y lengua en diferentes ámbitos (educación, mundo laboral, familia, ocio y deporte ...).
- Trabajos de investigación sobre el papel de las mujeres en la revitalización del euskera (a través del patrimonio oral o mediante investigaciones bibliográficas).

El plazo para presentar los proyectos será de un mes a partir del día siguiente al de la publicación de la Orden aprobada hoy en el Boletín Oficial del País Vasco, tras lo cual una comisión de selección estudiará y adjudicará las becas.

En la convocatoria del año pasado recibieron la beca Berdintzen los siguientes cuatro proyectos:

- *Sukaldetik agorara: Euskaraz idatzi duten emakumeak “lurralde ilunetik” argitara ateratzeko bidean* (Miren Elixabete Perez Gaztelu eta Leyre Arrieta Alberdi)
- *Osakidetzako Zumarragako ospitalean hizkuntza inklusiboaren monitorizazioa* (Miren Mujika Garate)
- *Xuka eta noka Ipar eta hego: emakumeekin solasean* (Uxo Elustondo Arzallus eta Irantzu Epelde Cendoya)
- *Hizkuntza, generoa eta kirola. Euskararen erabilera eta genero-irudikapena herri mailako lasterketetan* (Alazne Mujika Alberdi) .